

Osoko bilkura

Zarautzen, 2013ko azaroaren 29an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Charritton, Piarres,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Lizundia, Jose Luis,
Oiartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Salaberri, Patxi,
Salaburu, Pello,
Sarasola, Ibon,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Gorrotxategi, Mikel, Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Adolfo Arejitak
ahala Jabier Kaltzakortari; Aurelia Arko-
txak ahala Sagrario Alemani; Jose Irazu
«B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari;
Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Zarauzko Udaletxeko Batzar
aretoan hasi da 10:00etan, ezkerreko
zutabearen ageri diren euskaltzainak ber-
tan direla.

Hasieran, euskaltzainburuak euskal-
tzain guztiak agurtu eta etorririkoen
zerrenda eta ahalak irakurri ditu. On-
doren, quoruma badela egiaztatuta,
Euskaltzaindiaren azaroko Osoko ba-
tzarrari hasiera eman zaio.

P. Salaburuk eskatu du gaien ordena
Gramatika batzordearen plangintzari
eginiko iruzkinekin hastea, hori dagoe-
nean utziz gero, horretarako astirik ez
dela izanen pentsatuz. Euskaltzainbu-
ruaren ustez, ordea, astia bada puntu
hori bere lekuan tratatzeko, gai ordena
aldatu gabe. Horiek horrela, eguneko
gaien ordenaren arabera hasi da bilkura.

1. Osoko bilkurako (2013-09-27) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

M. Azkaratek 3. orrialdeko «M. Azkaratek esan du horrek ez dakarrela inolako eskubide uzterik» testuaren ordez, beste bat proposatu du idatziz. Ondoko hau: «M. Azkaratek esan du horrek ez dakarrela inolako eskubide uzterik. EHUko webgunean ageri baita taldea (grupo) Comisión de Gramática de la Real Academia de la Lengua Vasca dela». Onartu da zuzenketa.

P. Uribarrenek 3. orrialdean bere izena agertzen denez gero, eta berak bilkura horretara joaterik izan ez zuenez gero, aipamena beste bati dagokiola nabarmendu du. Bilera-agiri proposamenean jasorikoa P. Zabaletak esan zuela argitu da.

A. Iñigok 5. orrialdeko «Nolanahi ere, irakasle gehienek ez dutela usaindu ere egiten gaineratu du. Gizarteak arau praktikoak behar ditu» testuaren ordez, beste bat proposatu du idatziz. Ondoko hau: «A. Iñigok Gramatika batzordeak orain arte egin duen lana miresgarria dela esan du. Nolanahi ere, uste du Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasle gehienentzat EGLU lanak ez direla eskuliburu praktikoak. Bere iritziaren arabera, bai irakasle horiek, bai euskal gizartea orokorrean, Euskaltzaindiak azken hamabi urte hauetan eman ez dituen gramatikari buruzko arau praktikoek edo gramatika arauemaile praktiko baten esperoan daude». Onartu da zuzenketa.

Gai honekin amaitzeko, J. L. Lizundiak 5. orrialdeko «J. L. Lizundiak bateraezintasunaren gaia aipatu du. Izan ere, bere iritziz Euskaltzaindiko idazkari kargua eta Gramatika batzordeko kidea izatea ez dira ezkongarri» testuak ez du islatzen berak esanikoa. Horiek horrela, beste testu bat proposatu du idatziz. Ondoko hau: «J. L. Lizundiak idazkari akademiko karguaz eta Gramatika batzordeko kide batera izateaz honako hau argitu nahi du: idazkari kargutik ez dela ondorioztatzen batzorde horretako edo beste baterako kide izateko meriturik, izan daiteke beste edozein euskaltzainen maila berean». Azken iruzkin hau ere onartu da Osoko bilkuran.

Bestelako oharrak ez dagoenez gero, onartu da 2012ko irailaren 27ko Osoko bilkurako bilera-agiria, egin zaizkion oharrak txertatu ondoren.

2. Exonomastika. Antzinatea (1): Mesopotamia (Sumer, Akad, Asiria, Babilonia). Pertsona-izenak eta mitologia araua onartzea, hala erabakiko balitz

X. Kintanak adierazi duenez, proposamenaz ez da oharrak jaso eta, beraz, Exonomastika batzordearen izen zerrenda horietako izen-proposamenak ontzat eman dira.

3. Onomastika: Pertsona izenen gomendioa aurkeztu

Onomastika Batzorde ahaldunduaren burua den P. Salaberrik hirurogeita hamar orrialdeko txosten idatzia ekarri du, euskaltzainen artean banatua, horren ondoan hiru puntuko gomendioa proposatuz, pertsona-izenak formaren arabera gizonetzko ala andrazkoenak ote diren bereizteko. Ondorio horiei begira eginiko txosten luze eta mardulean, datu ugari eta xeheki dokumentatuak eskaintzen dira pertsona-izenen arloan. Hor XIX. mendetik gaur arte gertaturiko aldaketa nabarmenenak bildu, sailkatu eta aztertu dira, horien erabilera eta maiztasunari buruzko zuzentasan- eta egokitasun-irizpideak eskaintzeko helburuaz.

X. Kintanak esan du hizkuntza egitura eranskaria duten gainerako hizkuntzen antzera, euskarak ez duela genero gramatikalik bereizten, eta, horregatik, ez dagoela hitzen morfologian horiek maskulintzat zein femenintzat jotzeko inolako ezauzgarririk. Halere, badira, hitz edo izen batzuk jendeari sexu baterako edo besterako egokiago iruditzen zaizkionak, estatistika lekuko. Bestalde, P. Salaberrik gogorarazi egin du, Espainiako legeriak argi agintzen duela pertsona-izenek garbi utzi behar dutela sexu bakoitzari nolako izena dagokion, izen berberak bietarako baliorik izan gabe. Horren arabera: -a edo -e duten hitzak eta toponimoak emakume-izentzat hartzea proposatzen da. Aldiz, bukaeran -i, -o edo -u dutenak gizon-izentzat jotzea, bai eta kontsonantez amaituak ere. Gomendioak, bestalde, hemendik aurre-erako balioa izan beharko luke, baina atzeranzko eraginik izan gabe.

X. Kintanak, bestetik, esan du, berak dakiela behintzat, euskararen antzera, maskulino-femenino bereizketarik ez daukaten beste hizkuntzetan ere (suomiera, georgiera, japoniera, turkiera...) ohikoa izaten dela, naturako izenak pertsona-izentzat hartzen direnenean, horietako batzuk soilki gizonetzkoentzat eta beste batzuk soilki emakumezkoentzat izatea, eta ez dela normala izen bera sexu bietarako erabiltzea.

Irati izena ez dela zerrendan ageri esan du A. Sagarnak. Baina hobeki behaturik, badela erakutsi da. M. Azkaratek -o bukaerakoan artean *Izaro* aipatu du. P. Salaberrik, ordea, erregelak ez dituela orain artekoak galarazten gogorarazi du. J. L. Lizundiak Ama Birjina izenetan -a kentzeko dagoen ohituraz mintzatu da, adibidez, *Liemia* «*Liemi* edota *Goiuria*» *Goiuri*. Ondorioz, zeintzuk diren -a organikodunak eta, zeintzuk artikuludunak, hots, «-a»dunak eta zerrendan, bere ustez, izen osoaz agertu beharrekoak. M. L. Oñederrak galdetu du ea noiz hasi zen gizon/emakume izenen arteko bereizketa hori. Erantzunez, M. Gorrotxategik argitu du, Franco hil ondoan hasi zela arazoa, legeak jendeari izenak jartzeko askatasun handiagoa em-

tean. P. Zabaletak esan du *Lilia* eta *Inuñea* behintzat emakume izenak izan direla tradizioan. Proposamenari oharrak egiteko epea urtarrilaren 10erako utzi da, eta idazkariordeari bidali beharko zaizkio.

4. Gramatika batzordearen 2013-2016 aldiko plangintzari eginiko iruzkinak, oharrak zein ekarpenak onartzea, hala erabakiko balitz

Euskaltzainburuak hitza Gramatika batzordeburuari eman dio. Gramatika batzordekideek atzo bilera egin zutela azaldu du P. Salaburuk, eta hartan idazki bat prestatu eta adostu zutela. Testu hori berak irakurri du batzarrean. Halaber, irakurriko testua euskaltzainei eskuratu zaie eta Osoko bilkurako karpeterari gehitu zaio.

A. Urrutiak informazioa eskertu du. Hala ere, deitoratu egin du, bera ere, pertsonalki, euskaltzain gisa, eta aurretik, ahoz zein idatziz, hor egoteko interesa adierazi arren, hain garrantzi handiko bilera horretara deitua ez izatea.

P. Salaburuk esan du, edonola ere, batzordean A. Urrutiaren proposamen horren berri eman zuela eta gutuna denen aurrean irakurri zuela, bilduek zertan zetzan jakin zezaten. Hala ere, A. Urrutiak protesta egin du, bera ez baitzen hara deitua izan. Ondoren A. Urrutiak *Euskara Batuaren eskuliburua* paratzeko asmoz, Batzorde ahaldundu bat eratzeko proposamena aurkeztu du idatziz, aurreko Osoko bilkuretan egin duen proposamena osatuz. Testu hau euskaltzainen artean banatu eta Osoko bilkurako karpeterari erantsi zaio.

Osoko bilkuran gaur banatu diren bi dokumentuak Barne jardunaldietako materialarekin batera argitaratuko dira.

P. Salaburuk Gramatika batzordeak hasieran egin zuen proposamena eguneratu duela, egin zaizkion ekarpenak kontuan hartu dituela eta aurrerantzean Gramatika batzordeak gauza biak berak egitea proposatu du, hots, EGLU orain arte izan dena berridazten, osatzen eta laburtzen segi eta, aldi berean, jendeak nahi lukeen gramatika txiki laburra prestatu ere. Nolanahi ere, bigarren hau lehenbiziko zeregina egin ostean egitea erabakigarria dela esan du, gauzak ondo egingo badira.

Ibon Sarasolak uste du A. Urrutia eta P. Salaburu gauza ezberdinez mintzaten ari direla eta bi gauza diferente horiek izen bana behar dutela. Ez du ulertzen bigarren lantalde horren funtsa zertan datzan. A. Urrutiak dio Gramatika batzordeak segitu behar duela bere lanarekin, baina, aldi berean beste taldeak emaitza konkretu eta laburrago hori prestatu behar duela.

Pello Salaburuk esan du testuaren izenburuan ez dela aipatzen «gramatika» hitza, baina barnean -beste hizkuntzetan egindako antzeko lanak aipatzen direnean-

egiten diren erreferentzia guztiak gramatiken erreferentziak direla: hiru espainolarenak eta bat euskararena. Orain arte EGLUn egindako lana deskribatze hutsa izan dela gaineratu du Salaburuk, teknizismorik gabekoa, eta aipatzen diren erreferentziako beste liburu horiek askoz ere teknikoagoak direla esan du. Adibide argigarri batzuk ere irakurri ditu, liburu horietatik hartuak. EGLU berrikusi eta osatu behar dela esan du, kapitulu batzuk osorik aldatu behar direla, eta orduan bakarrik egin daitekeela liburu laburragoa, eta lan hori Gramatika batzordeari dagokiola. Hala egin dela hizkuntza guztietan, eta ez duela hizkuntza horietan alderantziz egindako adibide bat bera ere ezagutzen. Galdetu du ea inork ezagutzen duen non egin den lehenik liburu laburra eta gero luzeagoa. Halaber esan du Gramatika batzordeak eskatzen duela gaia alde batera edo bestera gaur erabakitzea, luzamendu gehiagotan ibili gabe.

B. Oihartzabalek dudan ematen du A. Urrutiaren proposamenari jarraikiz lan serioak egin daitekeen. Haren ustez, proposamen horrek ez ditu lan akademikoak behar bezala egiteko premiazko baldintzak ematen. Lau euskaltzain osoren inguruan eratu batzorde berri batek, hutsetik hasiz, bizpahiru urterik barne, 2016an, Euskaltzaindiaren oinarrizko gramatika ateratzea, kapituluka euskaltzain osoei aurkeztu eta haiekin osoko eztabaidaturik, ezinezkoa iruditzen zaio. Ez behintzat lan serio bat eginik. A. Urrutiak erantzun dio, bere ustez egun Euskaltzaindiak badi-tuela moduak bi horiei eusteko, gauzak etengabe atzeratzeke. B. Oihartzabalen iritziz, gramatika labur hori ez dago definitua, eta ez du uste horrela lan egin daitekeenik. A. Urrutiak esan du bere testuan ez dela gramatika hitza aipatzen, bere proposamena zabalagoa baita eta euskara batua osotasunean hartzen duela.

P. Zabaletak esan du Gramatika batzordetik heldu den txostenak produktu sakona proposatzen duela, eta hori berez ongi dagoela, baina herritarrek bestelako ekoizpena ere behar dutela, laburra eta praktikoa, berehala kontsultatzekoa, eguneroko zalantza ohikoenak argitzeko. Bide beretik, P. Uribarrenek gaur egun ikasle, irakasle eta irakurle arruntek gidaliburu bat behar dutela azpimarratu du, gramatika bateratu eta sintetizatua, orain arteko material sakabanatuez osatua. Era berean, esan du bi proiektuak bateragarri direla, Batzorde Ahaldunduan Gramatika Batzordeko bi kide izatea eta lan bateratua egitea proposatu baita.

Eztabaidan azalduko adierazpen batzuk direla eta, M. L. Oñederrak hitz egiteko moduari dagokionez, errespetua eskatu du, euskaltzainburuaren kasuan batez ere. J. Lizundiak, Barne-erregelen 67.2 artikulua aipatuz, erakunde ofizialetan ohi denez, euskaltzainburua ohargile legez eztabaidan aritzen denean, moderatzaile lana, Zuzendaritzako kide baten esku laga beharko lukeela uste du. P. Charrittonek

esan du berari ez zaiola emeritu hitza gustatzen eta bera zaharra dela, euskaltzainik zaharrena, hain zuzen. Batzuen izenak aipatu ditu euskaltzain izateko. Horretarako ez dela gaurkoa aldi egokia gogoratu izan zaio. A. Sagarnak adierazi du bera pozik legokeela zalantzazko eta oinarritzko gauza asko eskuliburu praktiko batekin argituko balira, beti gramatika sakonei itxaroten egon barik.

Gaur bertan bozkatzeari dagokionez, J. L. Lizundiak Barne-erregelen 67.5 artikulua dioena gogora ekarri du. Bere iritziz, gaietan agertzen dena, hots, Gramatika batzordearena soilik bozkatzea da prozedura, ondorioz, euskaltzain batek eginiko oharra bozkatzea geroratzea eskatu du. J. Lakarrak ere ez deritzo egoki gaur bozkatzeari, eta, bere aburuz, eskuliburua egiteak berez ez dakar beste gramatika sakonago bat egitea baztertzea. A. Urrutiak, bestalde, ez dakusa beharrezkoa gaur bozkatzea, bi aukera horien arteko desberdintasuna elkarriketaren bidez konpon daitekeela uste baitu. J. B. Coyosek pentsatzen du egiteko den bigarren lan horretan gramatika hitza jartzea komeni dela. Era berean, bigarren proiektu hori Gramatika batzordeko kideen parte-hartzerik gabe ez duela ikusten nabarmendu du. P. Salaburuk Gramatika batzordekideek erabakia gaur har dadin espresuki eskatu dutela azpimarratu du. Izan ere, Gramatika batzordearen lanak atzeratzen ari dira aurkeztutako proposamenari buruz erabaki garbirik hartzen ez delako.

Bozketari dagokionez, I. Sarasolak eta J. Lakarrak, bilera-agirian botazioan ez dutela parte hartuko jasotzea eskatu dute. Izan ere, prozedura horri desegoki deritote eta.

Bozkatzeko erari dagokionez, B. Oihartabalek batzordeak eginiko proposamena bozka dadin eskatu du lehenbizi, proposamena barne jardunaldietako prozeduran sartzen baita, eta horrela bozkatzen baitira batzordeen proposamenak jardunaldietan. Iritzi horren alde agertu dira P. Salaburu eta M. Azkarate ere, eta hirurek beren proposamen hori aktan jasotzea eskatu dute. Beste euskaltzain batzuek, ordea, ez dute modu hori egoki ikusi. Izan ere, haien iritziz bozketaren terminoak ez dira Gramatika batzordeak proposaturikoari bai ala ez adieraztea. Ondorioz, bozketa era honetara bideratu da: a) Gramatika orokor handia eta gramatika txikia Gramatika batzordeak egitea ala b) orain arteko batzordeak bere gramatika orokor handiarekin segitzea eta, aldi berean, beste batzorde edo lantalde ahaldundu batek euskara baturen eskuliburua prestatzea.

Bototara joanda, emaitzak ondoko hauek izan dira: bileran zuzenean edo ordeztuak dauden euskaltzainak 26 izan dira. Bik ez dute bozketan parte hartu (J. Lakarrak eta I. Sarasolak). Ondorioz, jasotako boto kopurua 24 izan da. Horietatik, 7

boto a) proposamenaren aldekoak izan dira eta beste 16 boto b) proposamenaren aldekoak. Jaso den boto bat baliorik gabea izan da.

5. Euskaltzaindiaren 2014. urteko egutegia aurkeztea

E. Osa idazkariordeak 2014. urteko egutegi-proposamena aurkeztu du, bai eta 2014. urteko egutegia osatzerakoan kontuan har daitezkeen bestelako mendeurrenak eta abar. Oharrak abenduaren 16rako igorri beharko dira.

6. Eskuartekoak

6.1. Literatura Ikerketa batzordeburua izendatzea. Literatura Ikerketa batzordean sorturiko hutsartea betetzeko, Zuzendaritzak Osoko bilkurari Ana Toledo euskaltzaina proposatzea erabaki zuen 2013ko urriaren 4an eginiko bilkuran. Proposamena egin aurretik, Zuzendaritzak Literatura Ikerketa batzordeari iritzia eskatu zion. Ana Toledok onartu du izendapena.

6.2. Herri Literatura batzordeburua izendatzea. Pello Esnal Herri literatura batzordeko buruak batzordeburu izateari utzi dionez gero, Zuzendaritzak Jabier Kaltzakorta euskaltzaina proposatzea erabaki zuen, 2013ko azaroaren 20an eginiko bilkuran. Proposamena egin aurretik, ordea, Zuzendaritzak Herri Literatura batzordeari iritzia eskatu zion. Jabier Kaltzakortak onartu egin du izendapena.

6.3. Pili Artzak erretiroa hartu du. Orain arte Euskaltzaindiaren egoitzaren garbiketa bere gain zeraman Pili Artza andrearen erretiroaren berri eman da. Ondorioz, J. Zabaleta kudeatzaileak azaldu duenez, aurrerantzean zerbitzu hori langile ezinduekin lan egiten duen enpresa batekin egitea erabaki du Zuzendaritzak. Erabaki hau behin-behinekoa da eta zerbitzuaren arabera iraunkortasuna emango zaio. Abisua eman du, halaber, Euskaltzaindiaren egoitza arratsaldeetan itxirik egongo dela. Beraz, inork bertan egoteko premia edukiz gero, aurretik adierazi beharko du.

6.4. Euskararen adierazleen sistema. Euskararen egoera soziala zertan den zehatz-mehatz eta era sistematiko eta jarraituan jasotzeko tresna bat eraikitzea da asmoa, aldian aldiko egoeraren nahiz denboran zeharreko bilakaeraren berri zehatza zorroztasunez emango duena. Egitasmo hori Eusko Jaurlaritzak gidatuko du. Bi lantalde eratuko dira, horietako bat Eusko Jaurlaritzaren baitan, eta bestea Nafarroako *Euskarabidea* erakundearen pean. Euskaltzaindiak hor ordezkarri bana ukamen ditu. Eusko Jaurlaritzako lantaldean Zuzendaritzak Jean-Baptiste *Battitu* Coyos Jagon sailburua proposatzea erabaki zuen, 2013ko azaroaren 20an eginiko bilkuran (Coyosek ezin duenean Erramun Osa, Sustapen batzordeko idazkaria joanen da). Nafarroaren kasuan, ordea, Andres Iñigo Nafarroako ordezkarria proposatzea era-

baki zuen 2013ko azaroaren 20an egindako bilkuran (A. Iñigok ezin duenean, Sargario Aleman Sustapen batzordeburua joanen da).

6.5. Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* dela-eta, Renoko University of Nevada-rekiko arazoa konpondu da. Etxepareren obra berrargitaratzearen harira, Euskaltzaindiak auzia konpontzeko proposatutakoaren berri eman du J. Zabaleta kudeatzaileak, eta Nevadako Unibertsitatearekin akordio berri bat izenpetu dela jakinarazi du.

6.6. Correo egunkariaren eta Euskaltzaindiaren artean lankidetzahitzarmena izenpetuko da. Abenduaren 2an, goizeko 11:30ean, Euskaltzaindiaren egoitzan, Correo egunkariaren eta Euskal Akademiaren arteko hitzarmena sinatuko da. Horren bitartez, besteak beste Correo-k ekoitziriko euskal testuak Euskaltzaindiari eskuraziko dizkio era informatikoan, Lexikoaren Behatokitako baliatzeko helburuz, Akademiak hor erabiliriko lexikoa eta sintaxia ikertzeko. Era berean, Euskaltzaindiak aholkularitza eskainiko dio Correo-ri euskarari dagozkionetan.

6.7. Liburuaren aurkezpenak

a) *Gasteizko Toponimia IV*. Azaroaren 13an, Patxi Salaberri euskaltzainak zuzentzen duen Gasteizko Toponimia egitasmoaren *Toponimia de Vitoria IV/ Gasteizko Toponimia IV (Onomasticon Vasconiae* bildumako 30. zenbakia) argitalpenaren aurkezpena egin zen Gasteizen. Euskaltzainei ale bana banatuko zaie gaur.

b) *Linguae Vasconum Primitiae*-ren edizio berria. Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, Euskaltzaindiak eta Eusko Legebiltzarrak Bernard Etxepareren liburuaren edizio berri bat aurkeztuko dute. Argitalpenak, euskaraz inprimatu zen lehenbiziko liburuaren faksimileaz eta gaurko euskal ortografiarako egokitzape-naz gainera, katalan, galego, errumaniera, txinera, kitxua eta arabierara eginiko itzulpenak jasotzen ditu. Argitalpen berri honen koordinazio eta hezuramamitzeaz X. Kintana Euskaltzaindiko idazkaria arduratu da.

c) *Euskararen Herri Hizkeren Atlas* V. liburukiaren aurkezpena. Abenduaren 12an EHHAREN liburuki hori aurkeztuko da goizeko 11:00etan egoitzan.

d) *Aiarako Toponimia Nagusia* liburuaren aurkezpena. Abenduaren 16an Gasteizen aurkeztuko da Ignazio Aldekoa Kultura etxean, eguerdiko 12:00etan.

8. Hurrengo bilkurak

a) Abenduaren 20an Osoko bilkura egingo da Baionan, Euskal Museoan, goizeko 10:00etatik aurrera.

- b) Egun berean, Ageriko bilkura eginen da Baionako Udaletxean, arratsaldeko 15:00etan. Bertan Jean Haritschelharren hilberri txostena irakurriko da.

9. Azken ordukoak

Ez da egon azken ordukorik.

Ondorioz, Osoko bilkura bukatutzat eman da 12:10ak direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Zarautzen, 2013ko azaroaren 29an

Iñaki Eizmendi «Basarri»ren jaiotzaren lehen
mendeurrenean

Zarauzko Udaleko Batzar aretoan, eguerdiko 12:10ean, Euskaltzaindiak, Iñaki Eizmendi «Basarri»ren jaiotzaren lehen mendeurrena dela eta, Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Jean-Baptiste «Battittu» Coyos Jagon sailburua, Miren Azkarate, Pierres Charritton, Patxi Goenaga, Andres Iñigo, Jabier Kaltzakorta, Joseba Lakarra, Jose Luis Lizundia, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Andoni Sagarna, Patxi Salaberri, Pello Salaburu, Ibon Sarasola, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren eta Patxi Zabaleta.

Ohorezko euskaltzainak: Jose Mari Iriondo.

Euskaltzain urgazleak: Anjel «Andu» Lertxundi, Pello Esnal eta Karlos Otegi.

Herri Literatura batzordeko Xabier Euzkitze.

Erramun Osa idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Iñaki Eizmendi «Basarri»ren hainbat senide.

Batzarburu, Andres Urrutia euskaltzainburuarekin batera, Juan Luis Illarramendi Zarauzko alkatea ere izan da.

«Basarri» 1913an jaio zen, Errezilgo Granada baserrian, baina zazpi urte zituela joan zen Zarautza bizitzera. Zarautzen hil zen, 1999ko azaroaren 3an, 86 urte betetzear zegoela. Horiek horrela, 2013ko azaroaren 27an ehun urte bete dira Inazio Eizmendi «Basarri» bertsolari, kazetari, idazle eta ohorezko euskaltzaina jaio zela. Mendeurrena dela-eta, urte osoan zehar «Basarri»ren omenezko ekitaldiak egin

dira Zarautzen. Inguruabar horretan, Ageriko bilkura egin du Euskaltzaindiak Zarautzen.

Ekitaldia hasteko «Basarri»ri buruz paratu den dokumentalaren zatia eskaini da. Horren ondoren, Juan Luis Illarramendi Zarauzko alkateak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak hasiera eman diote gaurko Ageriko bilkurari. Jose Mari Iriondo ohorezko euskaltzain eta Akademiaren Herri Literatura batzordeko kideak «Basarri 1931-1943» hitzaldia eman du, eta Xabier Euzkitze batzorde bereko kideak ere hainbat bertso kantatu du, ekitaldian zehar.

Bere hitzaldian, 1931. eta 1943. urteen arteko Inazio Eizmendi Manterola «Basarri»ren bizitzaren pasarte batzuk aipatu ditu Jose Mari Iriondok, eta bertsolari, kazetari eta irrati esatari bezala, berak egin eta esandako batzuk ekarri ditu gogora. Bestalde, abenduaren 17an, Auspoa bildumaren barruan, Basarri. Zarauzko berriak. 1931-1936 liburua aurkeztuko dela iragarri du.

Behin baino gehiagotan esana du Jose Mari Iriondok: «Batez ere bertsolaria zen Basarri». Zarauzko Azken Portu tabernan hasi zen bertsoan, eta 17 urte zituela, Zestoako plazan jendaurrean hasi zela ekarri zuen gogora. Ordizian bizi zen Erauskin errotiarekin aritu zen egun hartan. «Ondoren, garai hartako Euskal Herriko bertsolari on guztiekin kantatu zuen, hamazazpi urterekin hasi eta 1970eko hamarraldira arte herriz herri etengabe ibiliz. Txirrita, Saiburu, Olegario, Prantxes txikia, Matxin Irabola, Sasi aita-sembleak, Nekazabal, Exkerra, Euxebio Txapel, Kepa Enbeita Urretxindorra, Zepai...». Uztapiderekin osatzen zuen bikotea ere aipatu du, jakina: «Uztapide izan zuen bertso-lagunik leialena, 1944-1945ean hasita. Biek elkar osatu eta edertzen zuten».

Bertsolari eta kazetari ofizioz, hizketarako eta idazteko trebezia handia zuen. «Kazetari bezala beroa zen, ikaragarri beroa. Ez zuen aski notizia ematea edo komentarioak egitea; bere iritzia eransten zion idazlanari. Politikoa izan balitz mitinlari bikaina, seguru asko; baina partiduko gizona zen, eta horrekin nahikoa».

Hizlari gisa, «mintzalari onaren sena zuen. Bazekien hitza nola erabili, ahotsa ere egoki modulatzeko, isilaldiak egiten eta bere jarduna dramatizatzen bazekien. Maisua zen bere gudalagunei hitz egiten ere, edo eta edozein bazkalondo edo jaialdiren ondoren neurri librean hitzak errimatuz mintzatzen. Bazuen arduraren bere entzulea ahoa bete hartzeko, erabat txundituta edukitzeko». Irratian egin zuen lanak ondo baino hobeto erakutsi zuen berak zuen abilezia.

Gerran ere, kazetari aritu zen «Basarri». «Lehenengo Ertzain eta gero Euzko Gudarostean ibili zen garaian, gudako kazetaritza-lana egin zuen «Basarri»k, bera

bezalaxe etsai askoz indartsuago baten aurka borrokan zebiltzan gudamutilak animatuz». Eguna egunkarian, 1937ko apirilaren 8an argitaratu zen «Jeiki euzkoak, gora Euzkadi» idazlana irakurri zuen, horren froga gisa.

Gerra amaitu ostean preso hartu zuten, eta «trabadoreen batailoietara» eraman zuten. 1943an libre utzi zuten, eta Euskal Herrira itzuli zen, «zazpi urte luzeko amets gaiztoa gaindituta».

Ettxera itzuli eta bertsoan hasi zen, herriz herri. «Zaletasunez eta ofizioz, idazle eta kazetari lanetan hasi zen berriz, 1946ko udazkenean, Donostiako La Voz de España, bertsolari zaharren aipamen eta pasadizoak idazten zituen aldizka, jaien kontuak eta hola, baina artean ez herri kirolen konturik».

«Handik aurrera –azaldu zuen Iriondok– urte askoan idatzi zuen La Voz de España, El Diario Vasco, Zeruko Argia, Goiz-Argi, Arantzazu eta herrietako aldizkarietan. Bere azkeneko idatzia, oker ez bagaude, 1994ko azaroaren 2an bidali zuen El Diario Vascora. Urteen zamak eta osasunik ezak dena uztera behartu zuten».

Jose Mari Iriondoren mintzaldiaren ondoren, «Basarri»ren senideei oroigarri bat eman zaie. Era berean, Zarauzko Udalak Euskaltzaindiari plaka bat eman dio. Honela dio: «Zarauzko Udalak Euskaltzaindiari. Inazio Eizmendi “Basarri”ren jaiotza-ren mendeurrenean. Zarautzen, 2013ko azaroaren 27an».

Bukatzeko, Sanz Enea Kultura Etxean dagoen «Basarri»ri buruzko erakusketa, Zarauzko Udalak eta Eusko Ikaskuntzak elkarlanean prestatu dutena, ikustera joateko gonbita luzatu eta ekitaldia bukatutzat eman da, 13:15ak direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria